

EH Bilduk EAJ-PSE gobernu taldearen "ez jaiak" kritikatu ditu, eta hauen antolamendurako bakardadean egindako kudeaketa.

Nagore Gomara: "Beste behin ere, gobernu talde honek bere eredu parte-hartzailea zein den erakutsi du gai honetan: Herriarentzako diren "ez jaiak", Herririk gabe edo Herria kontuan hartu gabe".

Laudiu, 2020.09.07. Gobernu-taldeak ekimen ugari antolatu ditu "ez jai" hauetan: 2020ko Erroko Deuna iragartzeko kartelen lehiaketaren deialditik hasi, bando bat onartu arte, eta horiek iragartzen dituen pregoi pribatua. Izan ere, ez dugu ahaztu behar batetik, udalak abuztuaren hasieran, publiko egin zuen bideo bat, data horietarako zuhurtzia eskatuz, eta bestetik, kultUda kanpainaren barruan programatutako ekitaldiak. *"EH Bildutik argi eta garbi utzi nahi du kultur ekitaldiak antolatzearen aurka ez bagaude ere, ez gatozela bat pandemia honen erdian gobernu taldeak egindako kudeaketarekin"*, adierazi du Nagore Gomarak.

EH Bilduren ustez, tamalgarria da EAJ-PSE gobernu-taldeak Laudioko kultura-eta jai-taldeen erantzukizuna aurrez epaitzen zuen adierazpen instituzional bat onartarazi nahi izana, herriko eragileek antolatutako edozein ekitaldi debekatuz, aldi berean, kultUda kanpainaren barruan, udalak berak hainbat ekitaldi antolatzen zituen bitartean; gainera, horietako asko jaietako data esanguratsuekin bat zetozen: abuztuaren 16a (Erroko Deuna), 28a (Baserritar eguna), 29a (Odoloste eguna) eta 30a (Kofradiaren eguna). *"Ez gatoz bat udalak hartutako erabaki horrekin". Birusak bereizten al du non agertu behar den? Herriko elkarte eta eragile mugimenduak antolatutako ekitaldietan bakarrik al dago kutsatzeko arriskua? Edo, agian, gobernu-talde honek covid-19a kudeatzeko gaitasuna ere badu, eta badaki ze ekitalditan agertuko den? Gure ustez, koherenteena litzateke ekitaldirik egin ez izana"*, gaineratu du Gomarak.

Era berean, Laudioko EH Bilduren ustez, salatzekoa da gobernu-taldeak gai honetan erabilitako komunikazio-politika. *"Berriro ere, gure herriaren sektore garrantzitsu bat baztertzen eta ikusezin egiten duen udal gobernu baten aurrean gaude. Horren adibide, abuztuaren hasieran, egindako bideoan dugu. Bertan, gure jaiak anitzak izatea eragiten duten eragile asko eta asko ez zeuden. Bestalde, hilaren 14an, gobernu-taldeak bakardadean, pregoi pribatu bat irakurri zuen Herria pregoilara izendatuz, baina aldi berean, Herria baztertuz. Eta azkenik, komunikazioa eta propaganda nahasten duen beste adibide bat abuztuaren bigarren hamabostaldirako Kultudako ekitaldiak iragartzerakoan ikusi ahal izan genuen. EAJ-PSEko gobernu-taldeak udal komunikabideen bidez kultUdako ekintzak herritarrekin iragarri eta partekatu beharrean, ordaindutako publizitate formularen bidez iragarri zituen"* amaitu du EH Bilduko zinegotziak.

Bukatzeko, alderdi subiranistak adierazi du "ez jaien" kudeaketarekin gertatutakoak agerian uzten duela EAJ-PSE alderdiak parte hartzea bultzatzeko

sortu duen ereduak: propagandan oinarritutako kudeaketa da, kontuan hartu gabe eta alde batean utziz benetako protagonista; hau da, gizarte laudiorra.

EH Bildu critica las “no fiestas” del equipo de gobierno PNV-PSE, y la gestión en solitario de las mismas.

Nagore Gomara: “Una vez más, este equipo de gobierno ha demostrado en esta cuestión cuál es su modelo participativo: unas “no fiestas” para el Pueblo sin el Pueblo”.

Laudio, 07.09.2020. Han sido numerosas las cuestiones organizadas por el equipo de gobierno relacionadas con las “no fiestas”: Desde una primera convocatoria del concurso de carteles para anunciar los San Roques 2020, hasta la aprobación de un bando, así como el pregón privado a puerta cerrada anunciador de las mismas. No debemos pasar por alto un video que el ayuntamiento hizo público a primeros de agosto solicitando prudencia para estas fechas, así como los actos programados dentro de la campaña kultUda. *“Desde EH Bildu queremos dejar bien claro que, si bien no estamos en contra de la organización de actos y eventos culturales, no compartimos para nada la gestión realizada a este respecto por el equipo de gobierno en medio de esta pandemia”,* ha señalado Nagore Gomara.

EH Bildu considera lamentable la pretensión inicial del equipo de gobierno PNV-PSE de aprobar una declaración institucional en la que se prejuzgaba la responsabilidad de los grupos culturales y festivos de Laudio, prohibiendo cualquier acto que se realizara desde el tejido asociativo laudioarra, al tiempo que desde el ayuntamiento se organizaban diversos actos dentro de la campaña kultUda, coincidiendo, además, bastantes de ello, con fechas señaladas en las que hubiesen sido fiestas: día 16 (San Roque), 28 (Baserritar eguna), 29 (Día de las morcillas) y 30 (Cofradía). *“No compartimos que esos días sea el ayuntamiento quien organice eventos, prohibiendo así la organización de actos a las entidades locales. ¿Acaso, el virus sabe diferenciar dónde aparecer? ¿Sólo hay riesgo de contagio en los actos organizados por el movimiento asociativo del pueblo? ¿O, acaso, este equipo de gobierno tiene también la capacidad de gestionar el covid-19 y sabe en los actos en los que aparecerá? En nuestra opinión, lo más coherente hubiera sido no haber celebrado ningún tipo de acto”* ha añadido Gomara.

EH Bildu Laudio considera igualmente denunciabile la política comunicativa seguida por el equipo de gobierno en esta cuestión. “Nuevamente estamos ante un gobierno municipal que excluye e invisibiliza a parte importante de nuestro Pueblo. Ya lo vimos en el video realizado a principios de agosto donde no se contaba con muchos de los agentes que hacen que nuestras fiestas sean diversas. Fue patente también el día 14, en la soledad del equipo de gobierno, en la lectura de un pregón privado que apelaba al pueblo, pero que luego lo excluía, y, finalmente, un nuevo ejemplo en el que se confunde comunicación con propaganda lo pudimos ver a la hora de anunciar los actos de KultUda para la segunda quincena de agosto, donde el equipo de gobierno de PNV-PSE optó por anunciarlos bajo la fórmula de publicidad pagada en un medio de prensa

escrita, en vez de compartirlas con la ciudadanía a través de los distintos medios de comunicación municipales con los que cuenta el ayuntamiento” concluyó la edil de EH Bildu Laudio.

Desde la formación soberanista se ha querido señalar que lo acontecido con la gestión de las “no fiestas” pone de manifiesto el modelo de participación en el que creen PNV-PSE: Una gestión basada en la propaganda y que no cuenta con quien debe ser su principal protagonista, la sociedad laudioarra.